



Bertsio elektronikoa honen egilea: Joxemiel Bidador.  
Iturria: *Ziberuko botanika edo lantharen jakitatia*,  
Jean Baptiste Althabe. Lamaignère, 1900.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AlthabeBotanika.htm>

## ZIBERUKO BOTANIKA EDO LANTHAREN JAKITATIA

**Jean Baptiste Althabe**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## ZIBERUKO BOTANIKA

### EDO LANTHAREN JAKITATIA <sup>[1]</sup>

Bai bada jakitate hori, bena geruago txipitzenago ari da. Hitzen erdiak ez dira ezagütürük orai berrogei urthez peko jentez. Izan da *Üskaldüna* hogeita hamar urthe huntan laborari zaharrer entzün lantharen izenak bildü düttiana, eta ez ahazteko izkiribüs hartü düttiana. Egün harren ez üzteko galtzera, hasten da izen horien herrokatzen *Üskaldün* kazetan <sup>[2]</sup>. Othoitzen dü horren näusia, hun har dezan bihotzez obendatzen deron lan txipi hau. Hitz horiek oro zaharren ahotik elkhirik dira. Biltzaliak ez dü mereximentürük biltzeko pazentzia baizik, eta, lagün huneki, frantses hitzen edietekua baizik. Uste dü badela orano haboro biltzeko, nahi bada, baden hanitx ere galdürük. Üskaldüna ohartzale da zerk hun edo gaitz egin deron, eta halaz izentatü dütü lantharik. Batak: xixari belharra, odol belhar, arrestelü belharra. Bestik beren itxüretarik: axeri büztana, idi mihia, gathü bixarra. Zonbait beren lilitzeko sazutik: bedas lilia, domesanthore lilia. Eta orano edieten diren lekhütik: komentü lilia, andere mahatsa... Jinkuak lanthare bakhotxari eman dü bere photeria sendotzeko edo eritzeko. Minaren khantin ezarri dü orotan belhar sendozalila, ezagütü behar beita salbü Jinkuaren dohaña.

Hatsarretik Jinkuak egin zienian lürra, erran zeron: lürrak ekhar beza belhar berde sübertiak, bakhotxa bere aziareki, bai eta zühain frütü emai-leak, bakhotxa bere frütü eta aziareki. Eta hala izan zen, Jinkuak manatü bezala. Ikhusirik lantharen, zühaiñen, üzten baliustarsun espantagarria gizonen eta kabalen hazteko eta sendotzeko, dezala gizon fededünak goratik erran: Jinkuari dügün laidoro eta esker.

**Ahagua.** Patience (paciencia, romaza, rumex hydrolapathum).

Horen zaiñaeki egin tizana baliatzen da axaleko eraitekuetan <sup>[3]</sup>.

**Ahamenta.** Menthe poivrée des jardins (menta) <sup>[4]</sup>.



Lantharen baliusenatarik. Horren gozotik dira egiten pastilla borthitzak. Meliza bezala adelatürik den tizanak azkartzen dü estomaka, dijestionia eginazten, ikharak eta barne aizik ohiltzen, begitharte eri izanak zoharditzen, erreendeia eta inbeak iganazten, kolika ezützen, haurrer xixariak ehaiten, ünühder esnia igan erazten, ahamenta ostoz belara herstez bürüko mina anpletzen.

**Ahan berdía.** Reine claudie (ciruela claudia, prunus domestica) [5].

**Ahantzia.** Prunier (ciruelo, prunus).

Nula muzkin egin hortarik laborariak? Ahan marlatik erosten dira khario. Atse errezumetarik jiten da Frantzian eskas dena. Zertako üskaldün laborariak ezliro egin berak. Ez da gaitz. Hortakotz behar da ükhen Ageneko herriko ahantzia. Horren ezürra erein edo sindikataren bidez hanti enpheltia ekharreaz (balitzateke hasteko Urdiñarben), basa ahantze saldo bat enphelta, eta hirur urtheren bürüko emanen die ahan larri, briolet kolore, lüzan bat. Ordünkoz eginik izan behar lükie txotxezko khereta aldia bat, labe borthan igaiten ahal dien heñean, behar dena labe zolaren garnitzeko. Untsa huntü dienin ahanak, bata bestiaren gañen ezarri gabe, heda khereta horietan gañen. Ogia aski erreik den phüntian, idok labetik, eta behala ezar ordaritako khereta horiek bere fruteki labe zolan. Bihamenin, idoki kheretak eta ützüil pilazgora ahanak. Ahintzen hasi dira, Jinkuak barnen ezarri hur sükratia galzen hasi da, sükria lodia-go baratü da. Ützüili ondun ahanak, berriz labia beroazten da lehen aldin beno haboroxiago, ogiak idoki zienian beno, eta berriz ezartzen dira ahanak labian bere kheetetan. Bihamenin berriz idoki kheretak, ützüil ahanak, hirurgerren aldikoz ezar khereteki ahanak, labia bigarren aldin beno beroxiago helezten delarik. Bi oren egon dienezko bero hortan, idok ahanak, marlatuik dira. Ordian plega bero beruak dieno kesa hatsik hartzen ezten baten zolan. Kesaren bethatzekua balin bada, tinka ezteki ahanak artetarik. Untsa thapa kesa eta bi urthez ez dira gastatüko ez minthüko, ümitarzunik gabe begiatzen badira selaurian. Hobenko ahan txarrak hola hola marla ahal ditake, bena mami güti eta ezür handi lükete.

**Aihen xuria.** Clematite des haies (hierba de los pordioseros, clematis vitalba). Kobaiñ egiteko.

**Aihena.** Vigne (vid).

Sübertiak edo melgak dira: Iskiribeta, korbüa, klaberia, kamalaua, erle mahatsa, bordeleza, xaxela, klamadana, tanata, duxeta, xoxo mahatsa, basa mahatsa. Hilabetez, barürik mahats jatiak sendotzen dü gogoreia.

**Aistigarra.** Erable (arce, acer).

**Aitaiñ lilia.** Pissenlit (amargón, diente de león, taraxacum officinale). Zeren din frütü bürü xuri.

**Akaziatzia.** Acacia.**Akhamaila.** Hièble, yeble (yergo, sambucus ebulus).

Zañeki egin tizanak sendotzen dü üsü idropizia [6].

**Alga.** Aira (brezo, erica cinerea) [7].

**Alhargüntsa belharra, zorri belharra.** Aconit (matalobos, aconitum napellus) [8].

**Alhor kardía.** Chardonnelle à feuilles étendues par terre [9].

**Amañi lilia.** Lilas syringa.

**Ametza.** Chêne blanc où tautzin (melojo, quejigo, quercus toaza).

**Anbüla.** Asphodèle (gamón, asphodelus albus) [10].

**Andere mahats beltza.** Cassis (grosella negra, ribes uva crispera) [11].

**Andere mahats gorria.** Groseille rouge (grosella roja, rives rubrum).

**Aniza.** Anis (pimpinela anisum).

**Apiaza.** Bouton d'or, renoncule (renóncula).

Sohoko eta alhorreko lehen belhar berdía da bedatsian. Lilia urhe kolore, barnia argi berniza bezala. Lehen belhar berdía delakoz, aretza lotzen zaio lehiaeki. Mahastekatu onduan, ertxiak barnetik oro min jarten dira, jan onduan. Ordian aretzak bedajo dira erran nahi beita zain hil, begi handi eli bat zabaltürik nigarrez üdüri, phaetiak joiten ikhusten ez balire bezala. Belhar berde horrek phuzuatürik dira. Eman ordin kuntre phuzutako zahi hur. Apiazak idor ondoan galtzen dü phozua.

**Apiua, urdenapiua.** Celeri (apio, apium graveolens) [12].

**Arabarba.** Rhubarbe (ruibarbo, rheum nomen generis).

Pürgatzen dü.

**Ardaia.** Amadou (yesca, fomex fomentarius) [13].

**Ardi mihia.** Doucette, mache (yerba de los canónigos, valerianella olitoria) [14].

Horren jatiak ezützen, freskatzen eta xahatzen dü barnia intsaladan.

**Arestelü belharra.** Chiendent rampant (grama, agropyrum reptans) [15].

**Arestelü zaiña.** Chiendent commun (grama común, cynodon dactylon).

**Aribanta.** Rubanier (platanaria, sparganium ramosum) [16].

**Arradiza.** Radis, ruiponce (raponchigo, campanula rapunculus) [17].

**Arraga belharra.** Astrancia [18].



**Arragalisa.** Réglisse (regaliz, glycyrrhiza glabra).

Gure bortietako lanthare bat baliatzen dena prauen tizana sükratzeko [19].

**Arragatzia.** Fraisier (fresal, fragaria vesca).

**Arrosatzia.** Rosier (rosal, rosa).

**Artho xehia.** Millet (mijo, lithos permum officinale) [20].

**Arthua.** Maïs (maiz).

**Artixauta.** Artichaut (alcachofa, cynara scolymus) [21].

**Artzain musa.** Bourse à pasteur (paniquesillo, bursa pastoris) [22].

**Asperjatzia.** Asperge (esparrago, asparagus officinalis).

**Aspilzia.** Alizier (mostajo, sorbus aria) [23].

**Asto lilia.** Jeannette jaune ou coucou narcisse.

**Asüna.** Ortie (ortiga, urtica).

Gora juliaren tizanak ohiltzen dütü bulharretako eta gibel erraieta-ko emur soberikinak. Üda ala negü, zaiñeki egin tizana orano hobe da. Üsü jaten dinak asün phünta egosirik, espinaka bezala prestatürrik, odol gastatüti libratüko da. Italianuek üsü jaten die asün zopa. Errematismo dinak seha edo freta bitza minak egün oroz asün fresk ahürreta bateki, zalhetüko da.

**Asün xuria.** Lamier, ortie blanche (ortiga blanca, lamium maculatum).

**Axei büztan.** Prêle (cola de caballo, equisetum telmateya) [24]

Aiza edieiten den belhar hori baliusenatarik da barneko eta kanpo-ko. Horeki heakitu hurak min eta zauri zaharrak xahatzen ejertzen dütü, horreki bustatzez edo hortan bustirik den oihal batez troxatzez. Horreki egin tizanak xaharitzen dü estomaka. odolezko kraxatak, emazten odol galtziak eta grabela. Hur hori südürraz hürürpatzez ükhüratzen dütü südürrezko odol galtziak.

**Aza.** Chou (berza, brassica oleracea).

**Baatse kafia.** Lupin bleu (altramuz, lupinus albus) [25].

**Baatze krexua.** Cresson alenois (mastuerzo hortense, lepidium sativum) [26].

**Baba.** Fêve (haba, vicia gaba).

**Bagua.** Hêtre (haya, fagus silvatica).

**Banda.** Lavande (lavanda, lavandule).

Horren phüntak hur heakin thia bezala memento bat etxekiz, egiten dü bürüko minaren tizana hun bat, doian edanez, phüntak erhautzürrik, ürzain eginazten die. Arropen artian belharra etxekiz begiatzen tie zerenatarik.

**Baratxuria.** Ail (ajo, allium sativum).

Beste ordüz haurrak aristi askaiten ziren ogi belar baratxuristatürrik jatez. Hatsa memento bat gaizto, bena sekula xixaririk. Büriak handi eta bethi gose. Orai aldiz üsü txar eta denak xixari. Lehenago orano, saihest phüntak zirenian hertz baratxüri ister bat zaphatüz, orai potikaideko paper phiperstatüz.

**Basa arrozatzia, otso naharra.** Eglantier (escaramujo, rosa canina) [27].

**Basa erramutzia, basa erramia.** Fusains à fruits rouges, bonnet de prêtre (bonetero, eronymus europaeus) [28].

**Basa edo xerri gerezitzia.** Merisier (cerezo silvestre).

**Basa iatzia.** Fousère mâle, osmonde (osmunda) [29].

**Basa mineta.** Luzerne lupuline ou minette des prairies (alfalfa lupulina).

**Basa piperra.** Bistorte, persicaire (bistorta, polygonum bistorta).

**Basa teebüza.** Salsifis des près (salsifi de los prados).

**Basapurgatzia.** Euphorbe des bois (euforbio).

**Basazafra.** Colchique (cólquica, azafrán silvestre, carthamus tinctorius) [30].

**Bebeina.** Sarriete (thin, tomillo, thymus).

**Bedats lilia.** Primevère (primavera).

Hola deithürrik, zeren den bedats hastekua. Zerailü onduetan eta arroilletan edieiten da. Gerezi ostuaren handiguako dü osto berde bat, üxür eta lür erazian hedaillo, lilia hoilli, ürindün, bost hortzetako tüta baten barneti abiatzen. Kneipp erretorak dio, horeki egin tizanati edanez, taza bat egün oroz zonbait denboraz, eztitzen eta iragaiten diela ezür jün-tetako errematismo eta gutta.

**Behari belharra.** Joubarbe des toits, artichaut sauvage (yerba puntera, serpervivum tectorum).

Zeren zonbaitek uste dien haren sapak sendotzen dila beharriko mina. Osto bat gainti bateti axala khentürrik eta phausatürrik phiko baten gañen, odola ükhüratzen dü, hala ber mardotzen hikak (*ars*). Pomadak, eginik hirur laurdenak urin berriez eta laurden bat belharraren sapaz, eztitzen dü emurridak.

**Beladona.** Belladone (tabaco bastardo, astropa belladonna).

**Belhar beltza.** Morelle noire, scrofulair (morela negra, celidonia mayor, erica) [31].

**Beonika.** Véronique (veronica, veronica anagallis) [32].

**Berdülaga.** Pourpier (verdolaga, portulacea oleracea) [33]

**Beterraba.** Betterave (remolacha, beta vulgaris).

**Biera belharra.** Houblon (lúpulo).



Zeren hortarik eta gaagar bürnarazitik egiten den edari freskazale hori. Zerailletan gora duen lanthare bat da. Ostoa aspre bat mahatsarena üdüri. Frütia, behatzaren lodiguako eta luzeguako lili hoilli bildü bat da, zohi ürietan. Horen liliaren tizana (20 grama litrakal) hun da ezin diges-titüz denian, axal minetan.

**Bleta.** Bette, acelga, beta vulgaris [34].

**Bortusaia.** Rue fédide (ruda, ruta graveolens) [35].

**Bost ostoa, basa arragatzia.** Potentille, quintefeuille (cinco en rama, potentilla reptans).

**Brazilia.** Basilic (albahaca, ocyun basilicum).

**Brioleta.** Violette (violeta, viola).

Horekin egin tizanak eztatzen dü eztüla eta kokaluxa. Zaiñ xeheka-tik erendeazten dü.

**Buillublan.** Bouillon blanc (gordolobo, verbascum thapsus) [36].

Liliaren tisana marhantaren, oihalian iatsirik.

**Bürmutxa.** Blé sans barbe (trigo sin barba).

**Burkhia.** Bouleau (abedul, betula alba).

**Bürü-beltza.** Centauré noire (centauro negro).

**Bürzüntza.** Tremble (álamo temblón, populus tremula).

**Domensanthore-lilia.** Artemise (artemisa, artemisia vulgaris) [37].

**Eguerdi-lilia.** Anémone (anémone, anemona pulsatilla) [38].

**Egür belharra.** Lytrum ou salicaire (salicaria).

**Ehun ostoa.** Rosier peu odorant (rosa centifolia).

**Ekhia.** Grand soleil (girasol, helianthus annuus).

**Ekhililia.** Hélianthe (calaminta, elianto).

**Elhorri beltza, basa ahana.** Prunelier (endrin, prunus spinosa).

Liliaeki egin tizanak pürgatzen dü eztiki, estomaka azkartzen. Horen früta zohitiaeki egiten da aigardent hoberenatarik hirur departamendütan [39].

**Erabia belharra.** Epervière piloselle à dessous de feuille blanche (pelosilla, parietaria difusa) [40].

**Eriza.** Riz (arroz, oryza sativa).

Horren tizanak iganerazten dü elkhitzia.

**Erle belharra.** Lierre terrestre, herbe à la Sain Jean. Zeren hümia errezipitü behar din khobaña horren ürin borthitzaeki berekatzen den. Balius da ere horekin egin tizana eztül zaharrentako.

**Erramutzia.** Laurier (laurel, laurus nobilis).

**Erremulia.** Romarin (romero, rosmarinus officinalis) [41]

Tizanak phizten dü estomakak flakia eta dijestionea. Horeki egosi den arduak edanez, hun da ezur juntetan agitzen dien errematismoa hilen.

**Erroriz.** Rhododendron.

**Eskabiusa, bedalapa.** Scabieuse epervière (oreja de ratón).

**Eskalanbua, mizpiaua.** Sceau de la vierge (vid negra, tamus communis).

**Eske aihena.** Chèvre feuille, madre selva, lonicera peridymenum [42].

Zeren iskeretik üngüratzen edo zeihartzen beiti sürkhaitz bieia.

**España herezea.** Gaude, corolus, reseda jaune, verge d'or [43].

**Espinaka.** Epinard (espinaca, spinacia).

**Etxekalhaba belharra.** Gaillet, gratteron, caille-lait (amor de hortalano, galium aparine) [44].

Zeren arroper den lotzen hori etxe ondolik elkhitzian bezala.

**Ezpata, oilarbützana.** Glaieul (espadaña, gladiolo, gladiolus).

**Ezpela.** Buis (boj, ruxus sempervirens) [45].

**Eztia.** Miel.

Heben aiphatzen dü erremedi lili hanitxen kokotseti eginik beita erlik hürrüpatzez. Sükria beno hanitzez hobe da erien tizantako. Bera jateko borthizto da. Golharita bat hurtürik litra laurden batetan, azkartzen dü, erdi pürgatzen, estomakeko minkhoilak zohiazten, begi lapharziak xahatzen eta argitzen hur horeki bustatzez. Ezti hurian egozazi ondun nahar ostoa zonzait, züntzür minak eta eztüla ükhüratzen hur horeki bero gargarizatzen bada. Axalian agertzen bada küsküülü edo hanpilo, xilatzen edo bareatzen dira, hersten bada hula egiten den engoin batez: Erdia ezti, beste erdia irin eta hur güti bat nahasirik, lodisko izan dadin.

Zahartü nahi denak, arduaren ordari edanen du *hydromel* deitzen den ardu eztiz egina. Egiten da: oren batez egozastez hirur laurden hur eta laurden bat ezti, gahün gaña khentzen delarik. Gero barrikot garbi bat hortarik abantzu betha. Bostpasei egünen bürüko hortan hasten da herakitzen egiazko ardua bezala. Ützi hogei bat egün üdan herakitzea, beste hogei bat egün phausatzera. Gero petik ardu berria bezala xahila idoki argi, eta eginik da. Aldin güti edan beza senduak, eta eriek ere ez die hügüntzen.

**Eztikaats.** Douce-amère (dulcamara, solanum dulcamara) [46].

**Faluxa, ferua.** Trèfle incarnat (trifolium sativum).

**Franboiza.** Framboise (frambuesa, rubus idaeus).

**Gaagarra.** Orge (cebada).



**Gardubea.** Chardon doux des champs, laiteron des lieux cultivés, lenchus palustris.

**Garratza, garatzaina.** Petite houx (agracejo).

Zeren horren zañaeki egin tizana hun beita grabelaidiaren, hydropsian eta eskrofulan.

**Gathü bixar.** Delphine, nigelle (arañuela, adiantum capillus veneris) [47].

**Gaztañatzia.** Châtaignier (castaño, fagus castanea).

**Geretzitzia.** Cerisier (cerezo, prunus cerasus) [48].

**Gloriatsia.** Altea (malvisco, althaea officinalis) [49].

**Gromatia.** Chou pommé, (repollo, brassica oleracea capitata alba) [50].

**Groziña.** Blé d'Espagne (trigo chamorro).

**Guduñatzia.** Cognassier (membrillo, cydonia vulgaris) [51].

**Haltza.** Aulne (aliso, alnus glutinosa).

**Hariñondokua.** Sabline (arenaria).

**Haritza.** Chêne (roble, quercus); **zübihotza,** coeur de chêne.

**Haztei-belharra.** Angélique (angélica, angelica archangelica) [52].

**Hegigarra.** Suberosa, charme et une autre espèce [53].

Zeren dien zur axala oro hegi.

**Herrogia.** Blé à barbe du pays (trigo barbudo, triticum vulgare ovatum).

**Hika belharra.** Géranium dissectum.

**Hüntz ostua.** Lierre (yedra, heder helix); **hüzkeia** edo **züzkeia,** sa mouche.

**Hüstübelharra.** Chiendent des chiens [54].

**Iatzia.** Fougère femelle (helecho, osmunda regalis).

**Idi mihia.** Langue de boeuf, pulmonaire lingua de buey, anchusa italica).

**Igitei belharra.** Linaire bâtarde (linaria)

Zeren igiteiaeki egin zauriak horeki beitzien hersten.

**Ihia.** Jonc (junco, juncus).

**Ihitzia belharra, berbena.** Verveine (verbena, verbena officinalis).

**Ildopizarra.** Chiendent où espèce de graminée qui pousse entre les lignes de terre retournée par la charrue.

**Ilhagin orrazia.** Chardon à foulon (cardo de batanero, dipsacus fullonum).

**Ilhar bibila.** Pois petits (arveja, pisum sativum).

**Ilhar latza.** Lathirus gesce, pois de senteur (almortas, guisante de olor).

**Ilharra.** Haricot.

**Ilharria.** Breyère (brezo, erica nomen generis) [55].

**Ilherri lilia.** Souci (caléndula, calendula officinalis) [56]

**Ilhorri xuria.** Aubépine (espino albal, crataegus oxiacantha) [57].

**Intsalada xuria.** Laitue cultivée (lechuga, lactuca sativa) [58]

Egarria hausten eta lo eginazten dü.

**Intsensü belharra, intsensu lilia.** Cineraire, santoline citronelli.

**Inzaurtzia.** Noyer (nogal, juglans regia).

Horren ostuaeki egin tizanak sendotzen dü minhoia, scrofula.

**Imortela.** Immortelle (imortela).

**Iphularra.** Carex, laïche [59].

**Iraka.** Ivraie (cizaña) [60].

**Itsas gaztaña.** Marronnier d'Inde (castaño de indias, aesculus hippocastanum). Axalaeki egin tizana hun da helgaitzetan.

**Itze belharra.** Hysope (hisopo, hyssopus officinalis) [61]

**Izar belharra.** Stellaire (estrellada, stelaria holostea).

**Izeia.** Sapin (abeto, abies).

Horren phüntako butuek egiten die tizana bat huna gibel errai eta gibel minaentako. Thurmentina da aldiz haren onduk emaiten din sapa edo uina askoa phiko bat egiten zaionin.

**Janetatsia.** Violier (alelí, mathiola) [62]

**Jaonkillatzia.** Jonquille (junquillo).

**Jasmina.** Jasmin (jazmin, jasminum).

**Jinebretzia, hagintzia.** Genèbrier (enebro, juniperus communis) [63].

**Jiroflea.** Giroflée (clavillo, caryophyllus aromaticus) [64].

**Jundane Juhane lilia.** Lys blanc (azucena, liliium candidum). Zonbaitek horen zaiña deitzen die Andere Dona Mariaren zaiña. Horen zaiñak zaphatüik xilarazten dütü hanpiluak. Horen lilia egün zonbaitez etxeki din aigardentak edo oliuak sendorazten dütü kolpe eta phikuak.

**Kamomila.** Camomille romaine (manzanilla, chamomilla nobilis) [65].

Tizana balius aizetiko hunkitziaeki jauzten diren aziak.

**Kanabea.** Canne de Provence, roseau (caña común, arundo donax) [66].

**Kardinal bazka.** Seneçon (yerba cana, senecio vulgaris) [67].

**Karnatxa.** Raisin violet (garnacha, vitis vinifera).

**Kaskola.** Bruyère jaune (brezo amarillo); ajonc nain (aliaga enana, ulex nanus).

**Khalamia.** Chanvre (cáñamo, cannabis sativa).



**Khardia.** Chardon piquant (cardo).

**Khoostia.** Houx (acebo, ilex aquifolium).

**Khuia.** Citrouille (calabaza, cucurbita).

**Khiüutsia.** Courge (calabaza amarilla, curcubita maxima) [68].

**Khundea, kundea.** Avoine élevée bulbeuse, à chapelet (avena descollada fromental, arrhenatherum avenaceum) [69].

**Kokalikua.** Coquelicot (amapola, papaver rhæas) [70].

**Komentü-lilia.** Balsamine (balsamina, momordica balsamina) [71].

**Krexua.** Cresson (berro, nasturtium officinale).

**Kuntsuda.** Consoude (sinfito, symphytum officinale) [72].

Kilotako sei kupa emaiten diana urthin behientako, 20 egünetarik behar da phikatü. Ariuen saltzen da.

**Kürlo belharra, belhar zankhogorria.** Géranium, herbe á Robert (yerba de San Roberto, geranium robertianum) [73].

**Kuskuillia.** Rhinante (cresta de gallo, rhinanthus minor) [74]

**Laatxa.** Asperule, garance (asperula, asperula cynanchica) [75].

**Lanjatzia.** Orange (naranjo, citrus aurantium).

**Laphatiña xehia.** Aigremoine (agrimonia, agrimonia eupatoria). Hori da damnatuak manhatzen din tizana geia erorietan [76].

**Leherra.** Pin epicea (pino, pinus sylvestris).

Je crois, dont les morceaux emflammés servent à éclairer St.-Engrâce pendant deux heures, comme des chandelles de résines.

**Leizarra.** Frêne (fresno, fraxinus).

**Lia.** Lin (lino, linum usitatissimum).

Goizan gaintizia kulerata bat azi hurian egon denak gogozia sendotzen dü. Azia ehorik baliatzen da kataplazma egiteko hur herakin. Hur hortan heakiturik bazien aitzineti lau бүрү pabot, sabeleko mina ezitzen dü horeki egin kataplazmak.

**Loazlia, paboa.** Pavot (adormidera, papaver somniferum).

Ez da edaten, gaitz baita, bena horeki egosi huraeki hartzen da labamentü, bai eta egiten liaeki kataplazma, phausatzeko zabeleko minan gañen.

**Luiziana.** Aloizia odorata.

**Lür sagarra, patakua.** Pommes de terre (patata).

**Lürhüntza.** Liseron des haies (corregüella, convolvulus arvensis) [77].

**Lüzerna.** Luzerne (mielga, alfalfa, medicago sativa).

Behiek eta aretzek belhar berde hortarik eta treflatik sobera jaten badire eta bustirik, hantzen dira. *Météorisation* deitzen da hori. Aize thian batek barnia bethatzen deie, ixkerreko saiheitsian, eta oren laurden batez ithotzen ahal dütü, hatsaren ezin hartüz; zankhakhaz ari dira, mihia blü agertzen zaie, akabo da laster ezpada lagüntürik. Zer egin. Barbera hüillan eztenin, nur bera haz. Sar eraz behia bordan, abelpia lastoz lodi egin, erorten bada eztezan min har. Edaneraz zalhe zalhia litra bat hur hotz gaziturik 300 grama gatzeki. Bost edo sei minütaz mihia biziki thia kanpora gero batetan ützi sartzera (minutakal lazpabost aldiz mihiaren thia eta üztia). Arte hortan freta borthizki ixkerreko saihetsa eta sabela. Ezpada sabela deshantzen, berriz eman edatera hur gazi, edo hobeki orano kullerata bat amoniaka litra hur batetan nahasirik. Mihia zilintzau eta blü badü orano, erori gabe, aiziaren elkhigia bat, zilo bat egin *trocart* deitzen den arnezaeki, eta ezpada *trocark*, labela bateki. Haen sari ezarten delarik xiluan kanabea edo sangükitze xotx hütz bat, tüta batetarik bezala elkhidadin barneko aizia: tüta zola xirika, ezpada elkhitzen aizia. Xiluak egin behar dü ixkerreko saiheitsin, azken saihets ezürraren eta anka ezürra phüntaren artin (10 edo 12 zentimetra bizkar ezürra beno ahalago). Bürützen bada dezhantaztia, tüta hori üzten da orano xiluan oren zombait, aitzina aizia jalki dadin, eta berriz emaiten da edatea hur gazi edo irinaeki hur. Zauria txükartio latsatzen da aigardent eta hur algarreki nahasiareki. Erorten bada behia esparantzarik gabe, ganibeta lephoti sar, zerbait balio ükhen dezan phikulako. Ardiari ber erremediak, salbü eta 35 grama gatz bezaio emaiten litra laurden huretari.

**Mahua.** Aeillet (clavel, dianthus caryophyllus) [78].

**Malba.** Mauve sauvage (malva, malva sylvestris).

Ostuak, liliak, zaiñak tizana huna egiten die; marhanta ezitzen eta mardotzen.

**Malba xuria.** Guimauve (malvabisco, althea officinalis).

**Margaita lilia.** Marguerite, paquerette (margarita, bellis perennis).

**Mariaren khardia, triaga.** Chardon benit (cardo santo).

**Marmaua.** Sorgho à balais (sorgo, sorghum halapense).

**Masusa, amua.** Mures (mora).

**Meldona.** Menthe commune des chemins (mastranzo, mentha rotundifolia) [79].

**Meliza.** Mélisse (torongil, melissa officinalis) [80]

Lanthare baliusa da estomakeko minetan, бүrhüngürarian, ingoxerietan, eta berheziki zaiñen ematzeko. Edieiten da lür ütsaletan eta baratze-



tan. Biltzen da lantharia oro, lili denian granerian idorazten. Bere ezti ürina arraphizten zaio thia bezala egiten den tizanan (erhipürü bat edo biga litrakal). Goiz oroz gomendatürrik da edatia jente zahar gizener, apo-plexiaren ohiltzeko, bai eta nekez formatzen dien persuna gazter.

**Melua.** Melon (melon, cucumis mello).

**Mendiko ürso belharra.** Lotier corniculé (cuernecillo, lotus corniculotus).

**Migronelatzia.** Grenadier (granado, punica granatum).

**Mihimena, hoillia eta gorria.** Osier (mimbre, salix purpurea) [81].

**Milaxilo.** Mille-pertuis (corazoncillo, hypericum perforatum).

**Milosto.** Mille-feuille (mil en rama, achillea millefolium) [82].

**Mineta.** Oseille (accedera, rumex acetosa) [83].

**Mineta xehia.** Oxalis, petite oseille (accederilla).

**Mispiatzia.** Néflier (mizpero, nespilus germanica).

**Mitria.** Myrthe (mirto, myrtus communis).

**Mustarda.** Moutarde, senevé moutarde (mostaza, sinapis) [84]

Bada beltza eta xuria. Beltzak egiten dü sinapisma, eta xuriaren aziti goizan gaintitzez sendotzen da gogorreia.

**Naharra.** Ronce (zarza, rubus fruticosus) [85]

Horekin egosi den ezti hurak ematen dü züntzür mina gargarizatzez, bai eta beherako heia.

**Ñabua, arbia.** Navet (nabo, brassica napus).

**Odol-belharra.** Capillaire (hoja mosaica, asplenium trichomanes) [86]. Asplénium (doradilla, ceterach officinarum) [87].

**Ogia.** Froment (trigo).

**Oillabarra.** Bourdaine, nerprun (arraclan, espino cerval, rhamnus frangula, rhamnus catharticus) [88].

*Vosges* deitzen den kartielian laboraria pürgatzen da goizan zopan hartüz 25 bihika beltz horen frütütik.

**Olhaa.** Avoine folle, fausse avoine (avena fatua, ballueca) [89].

**Olhua.** Avoine cultivée (avena sätiva).

**Ondua.** Champignons comestibles (hongo en general): **buxeua**, mousseron (tricholoma gambosum); **gorrintxa**, oronge (amanita caesarea); **lekaxina** [90] (chanterelle, cantharellus cibarius).

**Leheronduak**, champignons non comestibles.

Dohakabia dianak jateko, ezagützen dü 6 edo 8 edo 10 oren bürüko, bürüko min, bürhüngürü, sabeleko min, goiti eta behera. Barbera jiten

den artian, egin ahalak oro egin erendatzeko, bi erhi züntzür zolala heltüz, edo gingilla lüma batez gillikatzez, edo orano taza bat edo biga olio ephel gaintitzez. Ez bada hola purga labamentü batetan har. Nulazpait libratü ondun dateke balius kafia edo barberaren erremediua.

**Ooldia.** Mousse (musgo).

**Orkhatz-ostua.** Androseme (todabuena, hypericum androsamum) [91]. Ostua oliun trenpa eta zauri zahar baten gañen hertz sendo.

**Oskerrena.** Arrête-boeuf (gatuna, ononis procurrens) [92].

**Ostopegorria.** Saxifrage (saxifraga, saxifraga nomen generis).

**Ostopekua.** Orchis moucheron.

**Othia.** Genêt épineux (aliaga, genista scorpius).

**Othondokua.** Betoine (betonica, btonica officinalis) [93].

**Papantzea.** Pensée (pensamiento).

Tizanak sendotzen dütü hurren urtheminak.

**Parietera.** Parietaire (pelosilla, parietaria difusa) [94]

Jiten da mürü zaharretan, tizanak aizatzen dü hur xuriaren egitia.

**Pasione lilia.** Passiflora (pasionaria, passiflora caerulea).

**Pater xuria.** Fusain à fruits blancs, symphoricarpum (bonetero de frutos blancos, symphoricarpum).

**Pendentia.** Fuchsia (pendiente).

**Peratzia.** Poirier (peral, pyrus).

**Perrezila.** Persil (perejil, petroselinum sativum).

Horeki egosi hura hun da begiko minen, poitrinaiden tizana eta amañuen ezniaren hausteko kanabeaki nahasirik

**Pheskatzia.** Pêcher (melocotonero, amygdalus persica) [95].

**Phika-belharra.** Asclépiade, isopyre.

**Phikotzia.** Figuier (higuera, ficus carica) [96].

Marhüka phika. Phiko zankhuak emaiten din esniaekin busta egün zunbaitez eta adio marhüka (*verrué*).

**Phiperra.** Piment (pimiento).

**Phoria.** Poireau (puerro, allium porrum).

Horeki egin kataplazmak zohitzen dütü hanpiluak. Tizana hun grabelan.

**Pikababa, otso belarra.** Ellebore (eléboro, helleburus).

**Pinua.** Pin (pino, pinus sylvestris).

**Pipila.** Liseron des champs (enredadera, corregüella, convolvulus).

**Pitusgarría.** Sené (sen, cassia obovata) [97]

**Plantaña.** Plantain (llanten mayor, plantago major).





Haren egoskinaeki bustatze edo müstükatze begjko mina estitzen da. Horren sapaeki herstez, phiko bat behala sendotzen da. Tinkatze emaiten din sapa edatez, bareatzen dütü barneko emur gaistuak.

Légende-Erran zahar bat: Amaberjinak bestordüz haitatü zin plantaña khiristi ororen minen sendotzeko. Ordin karota bezala zain bat zian. Debria jelos, phikatü zeron zaiña, eta plantaña ximürtzen hasi. Amaberjinak ezagütü nuntik zen kolpia eta erran: Demonio beltza, ez hiz baliatüko. Zain xehe saldo bat üngürünin phuseatsi zeron. Horra zertako din haenbeste zaiñ.

**Platanatzia.** Platane (platano, *platanus orientalis*).

**Poidezantür.** Gesse (arveja).

**Pübliertzia.** Peuplier (álamo).

**Pühüillia.** Fenouil (hinojo, *jaeniculum vulgare*).

**Pühüría.** Gui (muérdago, *viscum album*) [98].

**Pürgatzia.** Epurge (tártago, *euphorbia latyris*) [99].

**Saatsa.** Lilybium marianum, herbe qui pousse après la coupe de blé dans le chaume. Chaume où partie de la tige des blés qui reste au champ après le sciage; chaume où herbe qui pousse avec [100]. Setaire glauque: herbe poussant après récolte du froment dans le chaume.

**Saats belharra.** Letaria glauca.

**Safrana.** Safran (azafrán, *crocus sativus*).

**Sagartzia.** Pommier (manzano, *pyrus malus*).

Melgak dira: üzta sagarra, arneta beltza eta xuria, bürdüin sagarra, aniza, estika, mandobüría, teilla sagarra, pea sagarra, ginko sagarra, kamoiza.

**Sagükitzia.** Sureau (yergo, *sambucus ebulus*).

Ezinago balius den lantharia! Lilia idoraz, beharünia deneko. Horreki egiten da tizana bat izertatzen dina eta holaz emeatzen izerdi sarthü, errematismo, gutta, eta zaiñak mardoazten marhanta eta eztula. Fitezegi sarthü zürrunpiak, berriz erakhartzen dütü. Izapela eta ütülarik anpletzen dira horren huraeki hersten badira. Sei edo zortzi osto egozaz 10 minutaz eta pürgatüko zira, oren bat askaltü beno lehen edatez. Zaiñaeki adelatü tizanak mehaziko dü hydropisia. Sagükitziazen bihiak pürgatzen die eta pürifikatzen eztiki, berderik, ala idortürük, ala eztiaeki nahasirik konfitüa giza jaten balinbadira. Bigerren axalaeekin egin tizana gomendatürük da hidropizian.

**San Josephen lilia.** Lys violet (lirio, *iris germanica*).

**Sapa-belharra.** Mouron blanc des oiseaux, *cerastium, stellaria media* [101].

**Sapa ostuak.** Crasulacées, *crasulaceas*.

**Sekalia.** Seigle (centeno, *secale cereale*).

**Sen Mark lilia.** Boule de neige (bola de nieve).

Zeren prosesione khürützia horeki den althutzen.

**Sobia.** Sauge (*salvia, salvia officinalis*).

Erran zaharrak dio: nula hiltzen ahal da sobia etxen diana. Erran nahi beita baratze orotan edien behar lükiala. Ezi horren phünteki (12 gramma litrakal) eginik den tizana manatüik da dijestione gaistueta, erendeietan, estomakeko minetan, fiebra tifoidetan, jente flakiaren gaiazko izerdietan. Sobian egon den ardua (60 gr. litrakal) hun da helgaitzetan eta haurren aheian, bai eta zauri zaharren hersteke.

**Sorho erregiña.** Reine des prés, *spirea ulmaria*.

Ustekeria bada hun dela hidropiziaren eta hur xuriaren aizatzeke.

**Sühar belharra.** Valeriane (*valeriana, valeriana officinalis*).

**Sühar ostua.** Tussilage (uña de caballo, *tussilage farfara*) [102]. Héliotrophe d'hiver.

**Teebüza.** Salsifis (*barba cabruna, tragopogon porrifolius*) [103].

**Thiña.** Cuscute (*cuscuta, cuscuta epithimum*) [104].

**Tillulzia, eskia.** Tilleul (tilo, *tilia sylvestris*).

Mauleko aleak holakoz lanthatürük dira pharte, arrabot giblekuak. Üztailan emaiten die zühain balius horiek lili hoilli, lüzan bat izertazteko, zaiñen ematzeko, bürüko minentako. Ala dela tizana goxua! Farmazian saltzen da lilia khario.

**Topinanburra.** Topinambour (*patacas, helianthus tuberosus*).

Hoi da hoi laborarien fortuna! Zaiña ereiten da behin bethikoz. Lür sagar suberte bat da, zabala. Zankhua bi metra lüze da, dena osto, kabalek ürietan jaten ahal diena. Negjan bere lürpian ützen da sagarra kunterbatzekoz. Etzerat bildürük gasta litake amust egün gabe. Jentek eta kabalek berheziki borthakuek jaten die gogoti gordinik ala egosirik, eta gizentzen dira. Thia ahala thia, eta ez da arra ereiterik. Hai eli bat baratzen dia lürrian, hetarik jiten da ondoko azia. Aski da goroztatzia bedatsian. Harek ez dü eritarzünük lür sagarrak bezala.

**Triaga.** *Silybum marianum* [105].

**Tulipa, asto lilia.** Pivoine, à tort (*peonia anomala*).

**Txakur mihia.** Cynoglosse (*cinoglosa, cynoglossum officinale*) [106].



**Uinhua.** Oignon (cebolla, *allium cepa*).

Jinkuak gure barzetzan nasaiki phusasten din lanthare arrunt horrez, jatez eta edaneaztez haren salda ezitzen dü grabela, azkartzen estomaka. Gordinik zapha eta herts erradüa berri bat, ez da küzkültzen.

**Ünhürri ostua.** Gouet (aro, yaro).

**Urhebüüsia.** Bardane (lampazo, lappa major) [107].

**Ürhe lilia.** Chrysanthème (crisantemo, *chrysanthemum coronarium*) [108].

**Ürrütza, üzta hürtzia.** Coudrier, noisetier (avellano, *corylus avellana*).

**Ürzo belharra.** Trèfle à tête d'or (trebol de los campos).

**Ütsü belharra.** Herbe des fées (hierba de hadas).

**Üztailatsia.** Viorne lantana.

**Xaatxa.** Saule des haies (sauce).

**Xabulilia.** Saponaire (hierba jabonera, *saponaria officinalis*).

Hola deithürük zeren bustirik eta eskien artin tinkatürük, emaiten baitü xabuk bezala gahüma. Phüntek eta zaiñek (50 gr. par litre) egiten die tizana huna dardan eta hazteietan. Berorik ere hartzez izertazten dü.

**Xanphora.** Cardamine (cardamina).

Zeren magitzaren esküz hunkitzaieki jauzten diren aziak.

**Xarlota.** Echalote (escalona).

**Xarpotxa.** Serpolet (serpol, *thymus serpyllum*).

Eztülaeki duen bulharretako aranküetan manhatüük da tizana.

**Xarpoxlaria.** Thym (tomillo, *thymus vulgaris*).

**Xikorea.** Chicorée (achicoria, *cichorium intybus*) [109].

**Xinxila.** Cucubal (cucubalo) [110].

**Xipa belharra.** Menthe aquatique (menta acuática).

**Xiristola.** Genêt des tinturiers (retama de tintoreros).

**Xixari-belharra, axinxua.** Absynthe (ajenjo, *artemisa absinthium*)

.Hola deithürük zeren horreki egin tizana edo horreki egon arduak libratzen beitü xixaririk. Ezagütü dü gizon zahar bat, eri, estomakin phezü handi bat, barberak etsitürük. Aizoko ostalersak, beitzakin, sendun, maite ziela absinta edaria, hil gabe azken plazer bat egin behar zola, edaneazi zeron godalet bat. Eriak ondoti urthuki zien pelota bezalako xixari athe bat. Goizian oliatia, aratzen sendo zen.

**Xixai jauzazlia.** Tanaisie armoise.

Karota бүрүтия bezalako lanthare bat da, ürin borthitz bateki. Liliak üdüri dü butu bat. Likür bat egiten da xixaririk jauzerazten dütianana. Ostueki egin kataplazma, haurren sabelan gañen, etxekiz, ehaiten deitze xixariak [111].

**Xoibazka.** Mouron des oiseaux. Renovée des oiseaux.

**Xuhandora.** Cornouiller (cornejo, cornus) [112].

**Zalgia.** Vesce des haies (beza, vicia).

**Zantorea.** Centauré petite (centaura menor, *erythrea centarium*) [113].

**Zazpi-osto.** Alchimille (sietenrama, *potentilla tormentilla*).

**Zelidona.** Chélideine (celidonia).

**Zeñu-lilia.** Ancolie.

**Zühain iatzia.** Polipodium.

**Zühain madarikatia.** Troène (ligustro, *ligustrum vulgare*).

Xoriek ere ez die negian jaten horren früta.

**Zühain nigerregilia.** Saule pleureur (sauce llorón, *salix babilonica*).

**Zümia.** Salix. Saule blanc des ruisseaux.

Hoien egongaia **zumatzia.** Horren axalaeki egon hura edo arduak sendotzen dü sükharra, kinkinak bezala kasik.

**Zünharra.** Orme (olmo, *ulmus campestris*).

Hori idüri beste zünhar bat hegigarra. Ene ustez süberosa, salbü eta ostua xipiago beitü eta axala oro hegi, hartakoz deithürük hegigarra.

[1] Lehendabiziko idazki honen edizio berri honetarako hainbat aldaketa eta gehiketa egin dugu. Althabek zekarren ordenari buelta eman diogu, eta frantsesa-euskara izan ordez, euskara-frantsesa ordenari jarraitu diogu. Bestalde, gaztelerazko eta latinezko deiturak ere gehitu ditugu, parentesi artean beti. Althaberen testua doian gorpuzteago Lakoizketaren lana aldamenean izan dugu uneoro. Horretan, Larramendiren *Diccionario Trilingüe* hiztegian azaldukoak, baita Aizkibelenak jasotzen dira. Edozein modutan ere, ez dugu deitura ezberdinak baizik hartu, eta ez beti, gehixegi ez luzatzearren. Orain arte argitara ateratako Mitxelenaen *Orotariko Euskal Hiztegia* delakoaren alekiak ere eskura izan ditugu.

[2] *Eskualduna* aldizkaria 1887.ean elki zen estrainezko Luis Etxeberriren akuilagopean, betiere errepublika zaleek atera *Réveil* zeritzanari kontra egiteko. Ezagunn da astekari honen bizitza luzea, baita zuzendaritzan izaniko goren graduko izenak: Hiriart-Hurruti, Blas Adema "Zaldubi", Saint-Pierre, Arotzarena...

[3] *Ziorlatxa* (DT); *ahago* (BN, S), *ahagorri* (BN), paciencia, planta de raiz larga y hoja ancha (Azkue).

[4] *Ahamnda belhar* (BN, S), ajenjo / absynthe (Azkue).

[5] *Aran zuria* (Lakoiz.).

[6] *Andura, anyura, mausa, osilla-pikoa* (Lakoiz.).

[7] Forraje: <Ditxa duenak alga eta abere, eztenak ez lasto ere>, Oihenarte, 114.



- [8] Hagitz pozointsua. Lakoizketak *otseria* (=matalobos) eta *ira-belarra* deituekin batera Larramendiren hiztegian (DT) jaso *pozoiduna* aldaera ekarri zizkigun.
- [9] Una especie de cardo / chardon nain, dont les fevilles s'étalent sur le sol.
- [10] *Anbula* (BN, R, S), *anbulo* (AN, BN), *anburu* (L), *porrostia* (DT); landare honezaz alkohol mota bat egin izan da Lakoizketaren aburuz.
- [11] *Mats-larra* (Lakoizketa).
- [12] *Perretxillezea* (DT).
- [13] *Ardai*, *ardagai*, cierto tipo de agárico sin tallo, cuyas especies viven parásitas en el tronco del alerce, chopo, encina u otros árboles. Seco sirve de yesca; *Karduba* (Lakoizketa).
- [14] Althabek dakarrenaz gain, Lakoizketak *soldadu belarra* badakar: <aludiendo a su uso en esta comarca que lo introdujeron los soldados franceses en el año de 1793>.
- [15] Lakoizketak honakoak dakartza: *askia* (DT), *atso-erioa* (L), *atso-muturra* (Zugarramurdi).
- [16] *Bolligia* (Lakoiz.).
- [17] *Arbitxikia* (Lakoiz.).
- [18] Planta de la familia de las umbelíferas (Azkue).
- [19] *Gotxerrea* (Lakoiz.).
- [20] *Artaxiki*.
- [21] *Orburua* (DT).
- [22] *Artzain zorro belar* (Retana).
- [23] Lakoizketak *ostazuria* dakar, <no es chopo como dicen>. Honen ondoan *mats-pilla* (AN), *gurbie* (AN, Iruñerrian), *mazpila* (L) eta *azpila* (L) badakartza, mostajo, alisier des bois, sorbus torminalis. *Aspiltze* (S), majuelo / aubépine (Azkue).
- [24] *Eztañu belarra* (Lakoizk.).
- [25] *Ostatxea*, *orríteskua* (lakoizk.).
- [26] *Bumina* (DT).
- [27] *Saparlarra*, *luisalea* (Lakoiz.), alkarakatx.
- [28] *Arbol madarikatua* : <Los nudos de sus ramos y troncos son semejantes a los que algunos artistas tallan en los crucifijos, y por esto el vulgo supone que era de esta especie el madero en que clavaron a Jesucristo> (Lakoizketa); <Erran bat bada basa-erramua zela Jesu-Krixto itzatu zuten gurutzea; horra zertako dioten naski zuhaitz madarikatua han hemenka erratan. Udazkenean bihi gorrastaz kargatua delarik, zer landare pollita! Bainan bihi horiek zer pozoina duten!> (Zerbitzari, OEH).
- [29] Planta de la familia de los helechos / planta de la famille des fougères (Azkue).
- [30] *Astazafra* (DT).
- [31] *Ur ostoa* (OEH).
- [32] *Ige beratxa* (Lakoizketa).
- [33] *ketozkia* (Lakoizketa)
- [34] *Pleta* (Bortzirietan, Lakoizketa), *bezarra* (L), *zerba* (DT).
- [35] *Arroda* (Lakoiz.).

- [36] *Ostaza* (DT), *apo-belarra* (Lakoizketa).
- [37] Lakoizketak *belar-miña* dakar (DT).
- [38] *Nas-lorakia* (Lakoizketa).
- [39] Uharte Arakilen, landarea izendatzeko *txinbirio* hitza jaso dugu.
- [40] *Txarrangilla*, *orma beharra*, *odol-belarra* (Lakoiz.).
- [41] <Landare guti da Euskal Herrian erremulia baino maitatuago denik. pollita da, usain ona du, eta dohain hainitz badu erromatisma zahar eta holakoen kontra> (Zerbitzari, OEH).
- [42] Lakoizketak dakar *bermigrazia* (DT); en esta comarca es conocida con la denominación *ezkerra-aiena*, significando sarmiento que trepa en hélice de derecha a izquierda.
- [43] Gualda, vaso de oro / gaude, genêt d'or (Azkue).
- [44] *Lapa Txipia*, *Zia beharra* (DT).
- [45] *Urrusta* (DT).
- [46] *Azerimatsa* (Lakoiz.), *txorimahatsa*.
- [47] *Garaiska*, *txarrangilla* (Lakoiz.).
- [48] *Gerezia*, <no es de origen euskaro y viene del latin cerasus, pues se sabe que Lúculo trajo el cereco de Cerasonte, Asia Menor, y que de aquella localidad tomó su denominación, cerasus.
- [49] *Zigboilla* (Lakoizketa).
- [50] *Errepolloa*, *azakoba* (Lakoizketa).
- [51] *Irasagarra* (Lakoiz.).
- [52] *Aingarua belarra* (Lakoizketa).
- [53] Charmilla, árbol cuya madera se utiliza para trabajos de tornería / charme, arbre dont le bois s'emploie dans les travaux de tour.
- [54] Avena silvestre o grama de perros / avoine sauvage, chiendent des chiens.
- [55] Lakoizketak ere hauexek badakartza: *añarra* (en esta comarca, Bertizarana naski), *elharra* (L), *ilharra* (BN), *gillarra* (BN).
- [56] *Balsamo belarra*, *ebaki belarra* (lakoiz.).
- [57] *Arancibia* (DT).
- [58] *Urraza* (DT).
- [59] Espargaño, la hierba que nace la primera en primavera / laiteron, la première plante qui pousse au printemps (Azkue).
- [60] <Préstamo románico, *biraca*. del latin *ebriaca*.
- [61] *Urdin gorria* (Lakoiz.).
- [62] *Larasiña* (Lakoiz.).
- [63] *Ipurka*, *ipuru*, *likabra*, *iñibrea*, *orrea* (Lakoiz.).
- [64] *urriltza* (DT).
- [65] *Kamomila*, *bitxilora* (Lakoizketa).
- [66] *Kanabela*, *kañabera*, *garriza*, *kana* (Lakoizketa).
- [67] *Zorne-belarra* (Lakoizketa).
- [68] *Kalabazoria* (Lakoiz.).
- [69] *Mugitia* (Lakoizketa), *sora-mugiya* (Aizkibel).
- [70] *Lobedarra*, *lobelarra*, *emapola* (Lakoiz.).
- [71] *Balsa-miña* (DT).
- [72] *Ositxeka* (DT), *Zolda belarra* (Lakoiz.).
- [73] *Manda-persesilla* (Lakoizketa).



- [74] *Kurkubia*, *Kaskabilla* (Lakoizketa).  
 [75] *Eskinantzia* /DT).  
 [76] Lakoizketak *latxaskia* eta *orrortxeta*. (DT)  
 [77] *Lurruntza* (B, G.): planta parásita del trigo y maíz, tiene flor y raíz blancas / planta parasite du blé et du maïs, dont le fleur et la racine sont blanches (Azkue); *txilsurka*, *ezkertebeltza*, *ziurda*, *biurda* (Lakoizketa).  
 [78] *Txulufrina*, *julo-freia* (Lakoizketa).  
 [79] *Asta menda*, *kukuso-belharra* (Lakoizketa), *mendaza* (Aizkibel).  
 [80] *Laranja*, *torongilla*, *garraiska* (DT).  
 [81] *Zume*, *zumarika*, *zumitza*, *zumalika* (Lakoiz.).  
 [82] *Millorria* (DT).  
 [83] *Mingotxa*, *belar-gazia* (Lakoizketa); mineta belarra landetan nun-nai eltzen da, kardaberaren ostoa bezalakoduna da, goxoa, aurrak jaten duk haukien ostoa, lilia gaiñean batto du (L., Azkue).  
 [84] *Ziapea* (Lakoizketa).  
 [85] *Larra*, *sasia*, *lartza*, *marthotxa*, *martzoka* (lakoizketa).  
 [86] *Txardin belarra* (Lakoizketa).  
 [87] *Orma belarra*, *txarrangilla* (Lakoiz.).  
 [88] Lakoizketak honako hauek dakarzkigu: *Ollakarana* edo *zumalakarra*, eta *eskilarra* (DT).  
 [89] *Oloza* (Lakoizketa), *larre-oloa* (DT).  
 [90] Especie de seta comestible pequeña, amarillenta y temprana / girolle, chanterelle, champignon comestible jaunâtre et précoce (Azkue).  
 [91] *Orkhatz-belharra* ere bai (Lakoizketa).  
 [92] *Goldarrona* (Lakoizketa).  
 [93] *Sugeria* (Lakoizketa).  
 [94] *Txarrangilla*, *ormabelarra*, *odol-belharra* (Lakoiz.).  
 [95] *Mertxika*, *tuatxa* (L., Lakoizk.).  
 [96] Según Larramendi, en alemán es olla, así como en dialecto vizcaíno lapikoa, y puede aludir a la forma del receptáculo que encierra los frutos de este arbusto, pero esto según mi amigo el Sr. Campión, no pasa de ser una mera etimología de sonsonete, por lo que hay que buscarla en su nombre latino ficus, puesto que este no puede derivarse del vascongado ¿proceden ambas denominaciones de otra ancestral común? A esta pregunta que a cada paso surge, tratándose de nombres de objetos vulgares con nombres lingüísticamente reductibles, no puede hoy dar contestación la ciencia.  
 [97] *Pitusgarria* (DT).  
 [98] *Miura*, *miula* (Lakoizk.).  
 [99] *Tartikua*, *tartekina* (Lakoiz.).  
 [100] Rastrojo, residuo de cañas de la mies que queda en la tierra después de segar (Azkue).  
 [101] Hierba pajarera, pica gallina, hierba de raíz blanca larga / mou-ron blanc des oiseaux, herbe à longue racine blanche, *cerastium*, *stellaria media* (Azkue); Lakoizketa belar ezberdinak ditu Azkuek emanda-

koak: *stellaria media* = *sapelarra*, *txabarkoia*, eta *cerastium* = *belar zuria*, *sagu biarria*.

- [102] *Ersukaia*, *martdarrosa* (DT); <En este país algunos fuman sus hojas>, (Lakoizketa).  
 [103] <Las cocineras le llaman salsifi, nombre francés de esta planta cuyo uso se ha importado de Francia>, (Lakoizketa).  
 [104] *Txostorria* (DT).  
 [105] Cardo lechero, cardo santo / laiteron, chardon béni (Azkue).  
 [106] *Lapa txikia* (Lakoiz.).  
 [107] *Lapa-txikia* (DT).  
 [108] *Idibegia* (DT).  
 [109] *Oster-txuria* (Aizkibel).  
 [110] Azkue: Campanilla / sonnete (BN, S).  
 [111] Lakoizketak *azinjuba* eta *azantzkoa* badakartza. Zeregin bereberarako ere *artenisa abrotanum* edo txitxari-belarra. Behiala zizarien kontu hauek zinez kezkarriak ziren. Horrezaz zentzudun iharduki zuen Martin Minvielle Lartigau Labetseko miriku baxenafartarrak 1939.eko bere *Haurren arthatzeaz* idazki pollitan: <Gure haur guziek, urthearen ondok, xixariak badituzte. Izan ditezen eri edo ontsa, bethi badituzte zernahi. Har horiek egun guziet zuen baratzetan ikusten dituzuenen familia berekoak dira, batzu biziki lodi, bertzeak arras tipi. Haurrek lurretik hartzen dituzte; lurrean itzulipurdika edo herrestan ibiliz, erhiak bethi lurrez zikhinduak ahorat emaiten dituzte, egun guziet bar arroltzeak milaka, miliunka barneratzen dituzte. Arroltze horiek ttipiegi dira gure begiez ikhusteko; nahiko duzielarik, microscope delakoarekin ikhusaraziko daukitzuet; emadazue lur poxi bat eta ixkilinba buru bat baino ttipiagoko poxi batean ikhusten dituzte milaka. Haurrak egun guziet iresten dituen arroltzeak jalgitzen dira gutiz gehienak ungarrian; bainan batzu gelditzen dira lothuak hertzetan eta han handituz xixari bilhakatzen. Ez erran beraz ez dakigula medikuek haurretan xixariak baditezke; denek badituzte badakigu, eta zuek uste baino ainhitz gehiago>.  
 [112] *Belzurda*, *zuaindurra* (Lakoiz.). Azkuek alheña / troène ematen du, ligustrum vulgare, *beltxalea*, *biñorria*, *sosakusta*, *alegustrea* DT Lakoizketarenean).  
 [113] *Lubeazuna* (Aizkibel).